## Australiako animaliak hizpide

La2 • 15:45ean

Australiako animaliak izango dituzte hizpide *Australia indómita* izeneko dokumentalean.



### ETB 1

07:15: **Beakmanen mundua.**
07:30: **Betizu.**
08:45: **Euskal Herritik.**
09:20: **Itsas zaldien ezkutuko bizitza.**
10:10: **Sorginen laratza.**
11:25: **Bidaide.**
12:20: **Esanak esan.**
12:55: **Iparraldearen orena.**
13:00: **Madison.** Telesaila.
13:30: **Gaur egun.**
14:05: **Bertatik Bertara.**
14:30: **Goenkale.**
15:10: **Telefilmak.**
**Haritza zaharra.**
Zuz: GDuane B. Clark. Akt: Robert Foster, Genevieve Butler. 1999.
16:45: **Bidaide.**
17:45: **Parker Lewisek ez du sekula galtzen.**
18:15: **E-Klipse@**
18:40: **Betizu.**
19:45: **Betimu.**
20:28: **Gaur Egun.**
21:10: **Bertatik bertara.**
21:35: **Goenkale.**
22:20: **Sorginen laratza.**
00:00: **Hau komeria.**
00:25: **Bakarrik.**
02:05: **Bertatik bertara.**
02:50: **Eboluzioa.**
03:45: **Osabideak.**
03:55: **Ikusgela.**
04:40: **Eguzki lore.**
05:05: **Benta berri.**
05:30: **Axut.**
05:55: **Penelope Enea.**
06:25: **Urak dakarrena.**
07:00: **Rock azoka.**

### ETB 2

07:15: **Del pais de los vascos.** Judios en Euskal Herria.
07:40: **Cafe comedia.**
08:25: **Empresa Vasca.**
09:00: **Lengua viva.**
09:30: **Pleno en el parlamento vasco.**
13:40: **Navarra directo.** (Nafarroan).
14:00: **Gran Parchis TV.** Lehiaketa.
14:28: **Teleberri.**
15:20: **Lo que faltaba.**
18:35: **Zinema.**
**Apache.**
Zuz.: Robert Aldrich. Akt.:Burt Lancaster, Jean Peters. 1954.
20:00: **Esta es mi gente.**
20:58: **Teleberri.**
21:35: **Especial informativo.** Juan Jose Ibarretxeri elkarrizketa.
22:10: **Cine Exito.**
**French kiss.**
Zuz.: Laurence Kasdam. Akt.: Meg Ryan, Kevin Kline. 1995.
00:25: **Medias de seda.** Telesaila.
02:00: **Zinema.**
**La casa de Carroll Street.**
Zuz.: Peter Yates. Akt.:Kelly McGillis. 1988.
03:40: **Lo que faltaba.**
06:30: **Amaiera.**

## gaurko filmak

*Ane Muñoz*

**■ APACHE.** Robert Aldrich maisuaren ibilbidearen hasieran filmatutako lan ederra da, telebistan maiz ematen duten *western* polit eta gozagarria. Istorio atsegin eta entretenigarri baten kontakizun arina egiten du, aktore talde erakargarriaren laguntzaz. Halaber, jeneroaren elementu guztiak errespetatzen ditu, nahiz eta, beste berriztapenen artean, pertsonaiak ikuspuntu berri batetik erakusten dituen. Protagonistak apatxeak dira; indio horiek, Jeronimoren errendizioaren ondoren, zuriei aurre egiten jarraitzea erabakiko dute. Burt Lancasterrek zuzen jokatzen du horietako baten rola, eta Charles Bronson ospetsua ere azaltzen da aktoreen artean.

**■ LOS DIAS DE CABIRIO.** Zinemazaleok berehala ohartuko zareten bezala, Fernando Merinoren lan honek egun klasiko bilakatu den beste film bat du oinarritzat. Hau da, Fellini maisuaren *Le notti di Cabiria* zoragarria. Bestalde, harribitxi horrek lerrootan komentatuko dudan film kaskar honekin duen zerikusi bakarra izenburua da. Merinok parodia modura planteatu zuen. Ausarta benetan, ezta? Emaitza, ordea, txapuza txiki bat duzue. Aktore nagusiak nortzuk diren esanez gero, erraz asmatuko duzue abentura honen nondik norakoa: Alfredo Landa, Simon Andreu eta Helga Line, garai bateko mito erotikoa. Baztertzeko moduko komedia da, gustu txarreko umorez bustia. Cabirio ezkongaiak Torremolinosen emakumeez inguratuta izango dituen gorabeherak erakusten ditu.

**■ LA CASA DE CARROLL STREET.** McCarthysmoaren eragin eta ondorioak aztertzen dituzten filmen artean ez da onenetakoa, baina film zuzena da eta lasai gomendatu diezazueket. Kelly McGillis, Jeff Daniels eta Jessica Tandy ezagunak azaltzen dira, eta nahikoa antzezpen txukuna egin zuten Peter Yatesen aginduetara.

### *Ezusterik gabeko abentura erromantiko polita*

**■ FRENCH KISS .** Meg Ryan eta Kevin Kline erakargarriek protagonizatutako abentura erromantiko komertzial honek arrunt samarra du istorioa, baina Kasdanek film entretenigarri eta arrakastatsu bihurtu zuen, besteak beste luxuzko bikote protagonistaren partaidetzaz baliatuz. Pertsonaiak berez topikoak badira, are ohikoagoak dira elkarrekin izango duten harremanaren gorabeherak. Bestalde, film zuzena da; zenbait unetan irribarrea eragingo du eta, tarteka, sekuentzia hunkigarriren bat aurkituko duzue. Meg Ryanek, gainera, ekoizpenean parte hartu zuen.

| | | |
|---|---|---|
| **El momento de la verdad** 1965, Francesco Rosi, 99 m. | ♠♠♠ | 11:00 La2 |
| **Luchando con el corazón** 1998, Alan Metzger, 87 m. | ♠♠ | 16:15 T5 |
| **Apache** 1994, Robert Aldrich, 91 m. | ♠♠♠♠ | 18:35 ETB2 |
| **Passage à acte** 1995, Francis Girod, 100 m. | ♠♠ | 20:55 F3 |
| **Dias de fortuna** 1995, Andrew Davis, 108 m. | ♠♠ | 22:00 TVE1 |
| **A los que aman** 1998, Isabel Coixet, 91 m. | ♠♠ | 22:00 C+(e) |
| **Rembrandt** 1999, Charles Matton, 100 m. | ♠♠ | 22:05 C+(f) |
| **French Kiss** 1995, lawrence Kasdam, 106 m. | ♠♠♠ | 22:10 ETB2 |
| **Dolores Claiborne** 1994, Taylor Hackford, 130 m. | ♠♠♠ | 23:05 F2 |
| **La chatte des montagnes** 1921, Andrew Davis, 85 m. | ♠♠♠ | 23:30 Arte |
| **La casa de Carroll Street** 1988, Peter Yates, 101 m. | ♠♠♠ | 02:00 ETB2 |
| **Gallos de pelea** 1969, Rafael Moreno, 90 m. | ♠♠ | 03:10 La2 |
| **los dias del Cabirio** 1971, Fernando Merino, 95 m. | ♠♠ | 03:45 TVE1 |
| **Ypotron** 1967, Giorgio Stegani, 89 m. | ♠♠ | 04:40 La2 |
| **Reencuentros** 1993, Joyce Chopra, 88 m. | ♠♠ | 04:45 T5 |

♠ TXARRA ♠♠ ESKASA ♠♠♠ BALEKOA ♠♠♠♠ ONA ♠♠♠♠♠ BIKAINA



Burt Lancasterrek egiten du lan *Apache* filman.

## irratia ◆

**Bizkaia Irratia.** Goizeko 08:00etatik 10:00ak bitartean, musika eta albisteak entzuteko aukera izango da. 10:00etan, *Solasaldia* saioaren barruan, Andolin Eguzkitza, Xabier Monasterio eta Jabi Lauzirikak hitz egingo dute. 11:00etatik 13:00etara, *Ibaizabal* magazina eskainiko dute. Bertan, Asisko Urmenetarekin egingo dute solas. Nafarroa Oinez igande honetan izango dela eta, horren berri emango dute. Ondoren, aste honetako *Argia* astekariari buruzko berriak eskainiko ditu Katixa Garatek Gasteiztik. 13:15ean, albistegiaren txanda iritsiko da, eta eguneko berriak jakiteko aukera izango da. Arratsaldean, 17:00etatik aurrera, *Ziutateaz* izena duen kultur magazina eskainiko dute.

**Arrate Irratia.** 09:00etan meza eskainiko dute Mutrikutik. 10:00etan, nagusi eta gaixoentzako, *Gora Bihotzak* saioa izango da entzungai. 23:00etan, *Hamaiketakoa* irratsaioan, albisteak eta musika tartekatuko dituzte, eta Elgoibarko azokaren berri emango dute. 12:00etan, Zaldibarko eta Elgoibarko berri emango dute.

www.deika.com
943 344 494
• TELEF. FINKOA
• TELEF. MUGIKORRA
• AHOLKULARITZA INFORMATIKA
• INTERNET
• TELEFONOGUNEAK
DEIKA telekom
ENPRESA ZERBITZUA:
M. Etxeberria 1 ERRENTERIA
BANATZAILE OFIZIALA:
Euskaltel
Morrongilleta 1 ERRENTERIA
Hirib. Nafarroa 25 BEASAIN
Areizaga 1 URRETXU